

OGI TXIGOR PRESTATZAILEA

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



- **Zein da zure bezeroa?**

Ogi txigor prestatzailea produktu eskusiboa denez, jende dirudunari edo hau erosi ahal duenari zuzenduta dago. Guk sortutako produktua gaur egun sortutako ogi txigorgailuaren hobekuntza da, orain arte sortu ez dena, gaur egunerarte soilik ogia txigortzea lortzen genuen.

Gainera, aipatutako arrazoi hauengatik produktuak eskusibotasuna, luxua erakusten du, produktu hau erostea erabakitzen duen pertsonak apetaren ondorioz izango da, denbora aurrezteko, orain arte ezagutzen ditugulako ogia txigortzeko beste modu batzuk.

Beste alde batetik, hotelei bideratzea ere erabaki dugu, egunerokotasunean mugimendu asko egoten da eta guk hoteletan bizitako esperientziaren ondorioz, badakigu ogia txigortzeko ilarak beti arazo izan direla. Gure produktuarekin, ilara hauek saihestea posible izango da. Halaber, hotelek gure produktua izanda eskusibotasuna lortzen dute eta maila altuago batean egotea beste hotel batzuekin alderatuz.

Aurreko arrazoi guztien ondorioz, gure merkatu segmentazioa, merkatu-nitxoa da. Bezeroak oso zehatzak (eskusiboak) eta berezituak direlako, gainera produktuak duen programaren bitartez, hartzaileari aukera ematen dio bere programa egokitzeko, berak nahi duen bezala.

- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

Produktu bakarra da, pertsona eskusiboei bideratuta, guk sortutako produktua ezin du edozeinek lortu, orain arte sortutako ogi txigorgailuen artean ezberdina delako eta hobekuntza gehiago dituelako. Baina eskusibitatea alde batera utzita, pertsona hauek ezaugarri nagusi batzuk izatea ezinbestekoa da.

Lehenik, denbora gabe dabilzan pertsonentzat zuzenduta dago. Goizez lanera joan behar dutenak edo haurrak eskolara eraman behar dutenak, ez dute goizetan denbora izaten gosari osatu bat prestatzeko. Gainera, eguneko beste momentu baten ere erabiltzea posible izango dute, ez da bakarrik goizetan denbora falta duen pertsonarentzat sortutako produktua, egunean zehar denbora gabe dabilen pertsona bateri zuzenduta.

Beste alde batetik, adineko pertsoneri produktu hau erabiltzeak asko errazten die beraien eguneroko bizitza. Lehen, ogia txigortu eta marmelada eta gurina igurtzi behar zuten, baina gure produktua erabiliz, lana murriztuko zaie, bakoitzak behien beraien programa sartuta.